

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

175 etxebizitza jabetzan eta alokairuan eskuratzeko behin-behineko esleipendun-hartzaileen zerrenda argitaratu da

Babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eta tasatutako prezioko etxebizitzak (TPE) Arrotxapean, Erripagañan, Mutiloen artean, Zarrakaztelun, Murchanten eta Tafallan daude

Miércoles, 18 de marzo de 2015

Nafarroako Gobernuak, Nasuvinsa sozietate publikoaren bidez, Arrotxapean babes ofizialeko 56 etxebizitza eskuratzeko [esleipendun-hartzaileen behin-behineko zerrenda](#) egin du, 64 TPE Erripagañan eta 22 TPE Mutiloen artean, haiek guztiak jabetzan; horrez gain, erosteko aukera duten alokairuko BOEko beste 14 etxebizitza: 5 Zarrakaztelun, 5 Murchanten eta 9 Tafallan, eta haiek esleitzeko epea martxoaren 1ean zabaldu zen.



Babestutako etxebizitzak.

Baremotik eta eskatzaileek adierazitako lehentasunetatik ondorioztatutako behin-behineko zerrenda Nasuvinsako bulegoetan kontsulta daiteke (San Jorgeko etorbidea, 8 behea, Iruña) eta Tuterako Infonavarrenaren bulegoetan (Foruen plaza, 5-6). [Nafarroako Gobernuko etxebizitza-atari](#)an ere kontsulta daiteke. Hasierako esleipen honetatik aurrera, 10 egun baliouduneko aldia irekitzen da Iruñeko eta Tuterako Nasuvinsaren bulegoetan alegazioak aurkezteko, nahiz eta haiek ezingo diren izan eskaera bakoitza inskribatzean jadanik baloratutako alderdiei buruz.

Alegazioak ebatzi ondoren, beste zerrenda bat argitaratuko da, eta 10 egun baliouduneko epea zabalduko da esleipen-hartzaileek dokumentazioa aurkez dezaten, alde batetik, babestutako etxebizitza eskuratzeko gutxieneko baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko, eta bestetik, etxebizitza eskuratzeko baremoa zuzen aplikatu dela ziurtatzeko. Aipatutako dokumentazioa epearen barnean ematen ez bada, etxebizitzaren esleipen-hartzaileak hari isilean uko egin diola esan nahiko du.